



**Idiazabalgo**  
Udala

**OHIKO UDALBATZARRA**

**2024ko ekainaren 27a**

**LEKUA:** Batzar gela

**LEHENDAKARIA:** Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Jone Ormazabal Zabaleta (EH BILDU)

Aimar Lizarazu Iztueta (EH BILDU)

Iñaki Arriaran Murgiondo (EH BILDU)

Eunate Elio Cemborain (EH BILDU)

Jaione Munarriz Aramendi (EH BILDU)

José Agustín Urteaga Usandizaga (EH BILDU)

Patxi Mujika Olaizola (IZALBERRI)

Mikel Mujika Romero (IZALBERRI)

Aitziber Aizpuru Ceberio (IZALBERRI)

**EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIA:**

Ioana Prados Alustiza (EH BILDU)

**IDAZKARIA:** Garazi Arraibi Larrea

**DEIALDIA:** Lehenengoa

**ORDUA:** Hasiera: 18:00etan

**1.- Aurreko aktak onartzea, hala badagokio.**

Ahobatez onartzen da 2024ko maiatzaren 30eko akta.

**2.- Dekretuen berri ematea**

Idazkariak Dekretuak zeintzuk izan diren azaldu ondoren, ez dago galderarik.

**3.- Faktura zerrenden berri ematea**

Izalberrik Tapiaren fakturari buruz galdetzen du, ea kotxe elektrikoaren kargadorea martxan dagoen. Alkateak erantzuten dio bihar duela bilera APParen funtzionamenduari buruzkoa, hori falta dela. Azaltzen du asmoa dela ahalik eta arinen martxan jartzea, denbora eman dezan datorren urteko zerga ordenantzan tasa hau nola sartu kalkulatzeko.

**4.- GU 07/08 gunerako HAPOn aldaketa puntualaren interes orokorra onartzea, hala badagokio.**

Pedro Iparragirrek 2024ko apirilaren 25ean egindako eskariak interes orokorra daukala onartzen du ahobatez Udaltzat.

**5.- 2023ko Kontu Orokorra behin betiko onartzea.**

Ogasun, Langileria eta Kontuen Batzorde Berezian eman zitzaion hasierako onarpena 2023ko Kontu Orokorrari. Ondoren, GAO-n publikatuta ez da alegaziorik egon eta, beraz, Osoko Bilkuran behin betiko onarpena ematen zaio gaur.

Alkateak azaltzen du dokumentazioa Kontuen Auzitegira bidaliko dela.

**6.- 2024KALD0005 Kreditu aldaketa onartzea, hala badagokio.**

Ahobatez onartzen da kreditu aldaketa.

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 622.00.342.30 2024	Pilotalekuko sukaldea	0,00	6.000,00	6.000,00
1 480.01.231.30 2024	Larrialdietako laguntzak Udaltzat	2.000,00	3.000,00	5.000,00
1 227.00.342.10 2024	Kanpo zerbitz Kiroldetgia-soinketa gela	2.000,00	1.000,00	3.000,00
<b>GUZTIRA</b>		4.000,00	10.000,00	14.000,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01.000 2024	Diruzaintza gerakina	10.000,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>10.000,00</b>

**7.-Udaletxeko diru laguntzen deialdia hutsik geratzen denean, bigarren deialdia egiteko aukera onartzea, hala badagokio.**

Kasu konkretua Kultura Sustapenerako diru laguntzarena da. Iñaki Arriaranek azaltzen du inork ez duela epean eskakizunik burutu, baina behin epea pasa eta hurrengo egunetan interesdun bat agertu dela. Horren aurrean, Kulturako Batzordean komentatu zen aurten berriro diru laguntza ateratzeko aukera eta, Idazkariaren aldeko txostenarekin, hori proposatzen du. Ahobatez onartzen du Udalbatzak Kultura Sustapenerako diru laguntzaren deialdia berriro argitaratzea.

Bestalde, datorren urtean Plan Estrategikoa berritu behar dela aprobetxatuta, proposatzen da diru laguntzen deialdietan epeak errebisatzea (gehiago luzatuz adibidez); kasuan kasu aztertuko da.

**8.- Galderak eta eskaerak**

Ez daude.

Eta beste ezer esatekorik ez dagoela, bilera 18:15etan bukatzen da.

Alkatea

Idazkari-Kontuhartzailea